

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa % 2,9 hazi da 2015ean, Foru Gobernuak aurreikusitakoa baino hamarren bat gehiago

Urte arteko bere hazkunde ekonomikoa % 3,3 igo da laugarren hiruhilekoan, bizkortze txiki bat izan ondoren

Viernes, 29 de enero de 2016

Nafarroako ekonomia % 2,9 hazi da 2015ean, hau da, Nafarroako Gobernuak [irail](#)ean egindako % 2,8ko aurreikuspena gainditu du. Osagai guztiek laguntzen dute Barne Produktu Gordinak (BPGd) aurrera egin dezan, nahiz eta zerbitzuek eta kontsumoak neurri handiagoan egin.



2016an hazkundea % 2,9 izango dela aurreikusten du Gobernuak.

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik eman ditu [datu](#) horiek prentsaurrekoan, 2015eko laugarren hiruhilekoko EINren kontabilitateko aurrerapenari dagozkionak; bertan, 2016rako hazkunde-aurreikuspenari eutsi dio: % 2,9.

Ayerdik adierazi du, hala ere, nazioarteko testuinguru arraroa ikusirik, "oso adi" eta "alertan" izan behar dela; Espainiak eta Foru Komunitateak hazkunde-tasa handiarekin jarraitzen dutela esan du ere; izan ere, petrolio-prezioaren jaitsieraren eta euro-dolar aldatetaren balio-galtzearen ondorioek gerta daitekeen aurkako egoera bat malgutu dezake eta ekonomia "indartu". Espainiarako NDFk egindako aurreikuspena % 2,7 ko hazkunde da, Nafarroarako egoera positiboa dena.

Nolanahi ere, lehendakariordeak azpimarratu duenez, beharrezkoa da datu makroekonomikoak enpleguan eta kalitatezko enpleguan islatzea. "BPGd-aren hazkundearen enpleguan nabaritzen ez bada, zereginaren alde garrantzitsuena falta da. Eta alde horretatik, asko dago egiteke", adierazi du.

Bizkortze arina, laugarren hiruhilekoan

Urteko laugarren hiruhilekoan, Nafarroako ekonomiak bizkortze arin bat izan zuen (% 0,9raino heldu zen), Estatuko batez bestekoa baino hamarren bat gehiago; egoera horri esker, % 3,3ko urte arteko hazkunde izan da (2014ko IV. hiruhilekoaren alderatuz), hau da, aurreko hiruhilekoan baino gehiago (% 3,1), eta Estatuarekiko diferentziala murriztu da, urte arteko % 3,5eko hazkunde izan duena. Hala, urte arteko diferentziala bi

hamarren izan da; Estatuko batez bestekoak lauko aldea ateratzen zion lehen hiruhilekoan.

Laugarren hiruhilekoan izandako nolabaiteko bizkortze hori (urte hasiera ahula izan zen) egoeraren araberako adierazleetan ikusten zen. Adibidez, azaroan, zerbitzuen sektoreko negozio-zifraren % 7,4ko urte arteko hazkundera izan zen, eta industrian, eskaera-sarreraren % 9,7, eta negozio-zifraren % 5,4. Afiliazioa % 3,2 igo zen azaroan, eta % 3,1 abenduan.

Lehendakariordeak aipatu duenez, hazkunde-zifra horiek (% 1,5 2014an eta % 2,9 2015ean) Nafarroa hazkunde-erritmo handien artean jartzen dute (Espainiak % 1,4 izan zuen eta % 3,2 2015ean), Europar Batasunaren goranzko joerari jarraiki, baina aurrera egiteko tasa handiagoekin.

Aipatu beharra dago Alemaniak uzkurtze bat izan duela 2014arekin alderatuz (% 1,3, % 1,6 2014an), baina Frantzia, Nafarroaren lehen bezeroa esportazioan, erritmo onean egiten ari da aurrera (+% 0,2 2014an, eta % 1 2015ean).

BPGd-aren osagaiak

2015eko hazkunderako ekarpena BPGd-aren osagai guztien aldetik etorri zen. Sektoreei erreparaturik, ordena honetan: zerbitzuak, industria eta eraikuntza. Eta gastu-motari begiratuta, kontsumoa, kanpoko eskaria eta inbertsioa. Behin-behineko datuekin (IV. hiruhilekoko informazioa otsailaren 25ean zabalduko da), zerbitzuek eta kontsumoak tiratu ziren gehien iazko hazkunderari, nahiz eta guztiek laguntzen duten, gehiago edo gutxiago, BPGd-ak aurrera egin dezan (azken kontsumoa +% 2,3; etxetako azken kontsumoa % 1,9; zerbitzuen BPGd % 1,7, industriaren BPGd % 0,6, eta gainerakoek % 0,1 bat baino gehiagoko balioekin).